



NIK, IDOIA MENDIA CUEVAK, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARI NAIZENEZ, HONAKO HAU

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

ERABAKI-PROPOSAMENA, 2009-2013 LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN 2011KO BIGARREN SEIHILEKO JARRAIPEN-DOKUMENTUA ONARTZEKO DENA. (ESP. 2011/01159) (A/20110409)

2009ko azaroaren 17ko Akordioan, Eusko Jaurlaritzak agindu zuen Jaurlaritzako sailek, sei hilean behin, Lehendakaritzako Koordinazioko Idazkaritza Nagusiari txosten bat bidaliko ziotela, eta han azalduko ziotela zenbateraino bete diren edo, ezertan aldatu badira, zenbateraino aldatu diren Legegintza Egutegian jasotako konpromisoak, hartara, haien jarraipena eta ebaluazio errazago egin ahal izan dadin. 2011. urtea amaitzear dagoen honetan, iritsi da garaia Eusko Jaurlaritzako sailek azaldu dezaten zertan diren 2011ko bigarren sei hilekoan onartzekoak ziren lege-proiektuak. Proiektu horietako batzuk Legegintzako Egutegian bertan jartzen du, onartu zen momentutik, epe horretan onartu beharrekoak direla; eta beste batzuk, berriz, berez lehenago onartu beharrekoak ziren baina gertatu diren gorabehera batzuk direla-eta (aurreko jarraipen-agirietan behar bezala arrazoituta daude), urte-amaiera honetan onartzeko utzi ziren.

Eman duten informazioaren arabera, 2011ko abuztutik akordio honen egunera arte Gobernu Kontseiluak 6 lege-proiektu onartu ditu. Honako hauek dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen proiektua.
- Larrialdiak kudeatzeko Legea aldatzeko lege-proiektua.
- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duen Lege-proiektua.
- Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzen duen Lege-proiektua.
- Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legea aldatzen duen Lege-proiektua.
- Gazteen Legearen proiektua.

Badira beste 12 proiektu oraindik ere onartzeke. Hamabi horietako bat, hala ere (kiroletako dopinaren aurkako Legea) Gobernu Kontseiluaren bilera honetako gai-ordenan dago; eta beste 4 proiektu, berriz, Gobernu Kontseilura iritsi aurreko azken izapide-aldian daude. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dagoeneko emana du lau proiektu horietako biri buruzko irizpena: Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta transexualak aitortzeari buruzko Lege-proiektua, eta Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko Lege-proiektua. Euskal unibertsitate-sistemaren kalitate-agentziaren Lege-proiektua eta Paisaia antolatzeari buruzko Lege-proiektua ere zain daude, ea Euskadiko aholku-organo horrek iritzia noiz emango; eta, horrenbestez, uste izatekoa da lau lege-proiektu horiek laster bidaliko direla Gobernu Kontseilura, onar ditzaten.

Horretaz guztiaz gainera, Euskadiko ingurumena babesteko Lege Orokorra aldatzeko Lege-proiektua legegintza-egutegitik ezabatu egin da; Enpleguaren Euskal Legearen proiektuaren izapidea etenda utzi da (akordio honetako I. eranskinean datoz arrazoiak); eta 2013/2016 urtealdirako Euskal Estatistika Planari buruzko lege-proiektua, berriz, ez zegoen baina bildu egin da egutegira.



Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio Legegintzako Egutegiaren jarraipena egiteko dokumentu hau, gobernuaren legegintza-jardunerako tresna baita, Eusko Jaurlaritzak kudeaketa kontrolatzeko eta gardena dela ziurtatzea bultzatzearekin hartutako konpromisoaren esparruan.

Horrenbestez, Lehendakaritzaren proposamenez, eta aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak hauxe onartu du:

AKORDIOA

Lehenengoa.- 2009-2013 Legegintzaldiko legegintza-egutegiaren sei hilean behingo jarraipena (2011ko bigarren seihilekoko) egiteko dokumentua onartzea, Erabakiaren I. eranskinak finkatzen dituen baldintzetan.

Bigarrena.- 2013/2016 urtealdirako Euskal Estatistika Planari buruzko Lege-proiektua Legegintzako Egutegira biltzeari onarpena ematea, Erabakiaren II. eranskinak finkatzen dituen baldintzetan.

Hirugarrena.- Euskadiko ingurumena babesteko Lege Orokorra aldatzeko Lege-proiektua Legegintzako Egutegitik ezabatzeari onarpena ematea.

Laugarrena.- Erabakia eta eranskinak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, gobernuaren jardunaren jarraipen egokia egin dezan, IX. Legegintzaldiko legegintza-egutegia onartzen duen 2009ko azaroaren 17ko Erabakiaren bidez Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betez”.

ERABAKIAREN ERANSKINAK:

I. ERANSKINA

LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN JARRAIPENA – 2011KO BIGARREN SEIHILEKOA

1.- LEHENDAKARITZA

1. Euskadiko Udal Legearen egitasmoa.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko lehenengo seihilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko abuztuaren 30ean.

2. HERRIZAINGO SAILA

1. Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko lege-aurreproiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko hirugarren hiruhilekoa.



a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko azaroaren 8an.

2. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen bosgarren aldaketarako lege-aurreproiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko abenduaren 13an.

3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA.

1. Bizialdi Osoko Ikaskuntzako lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena jasotzeko agindua emanda, 2011ko azaroaren 8an.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seiuhilekoa.

2. Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Legearen proiektua

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena eskatzeko agindua emanda dago, 2011ko azaroaren 17an.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seiuhilekoa.

4. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.

1. Baliabideak banatzeko metodologia eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia onartzeko lege-proiektua, 2012/2016 eperako.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko 3. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seiuhilekoa.

2. Euskadiko Aurrekontuen Araubidea aldatzeko lege-aurreproiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.



a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko agindua, 2011ko apirilaren 20koa. Proiektua bitan zatitu zen, 2010eko bigarren seihilekoari dagokion legegintza-egutegia jarraitzeko agirian agindu bezala: batetik, 2011ko maiatzaren 24an Gobernu Kontseiluak onartu zuen Aurrekontu Legean jasotako legegintzarako eskuordetzaren babesean taxututako Legegintzako Dekretua, eta, bestetik, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Legea aldatzeko lege-proiektua (onarpenerako, 2011ko bigarren seihilekoa jarri zitzaion epea).

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seihilekoa.

3. Estatistikako Euskal Planaren lege-proiektua 2013/2016.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: Legegintza-egutegian sartu berria.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko agindua emanda, 2011ko urriaren 20an.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seihilekoa.

5. ETXEBIZITZA, HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

1. Etxebizitzaren lege-proiektua

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seihilekoa.

2. Mugikortasun jasangarriaren lege-aurreproiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko 3. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seihilekoa.

3. Trenbideen Sektoreko Lege-proiektua

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko agindua emanda, 2010eko irailaren 20an.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seihilekoa.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko 3. hiruhilekoa.



a.2) 2011ko abenduko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seihilekoa.

6. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA.

1. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzen duen lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011eko bigarren seihilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko urriaren 26an.

2. Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011eko bigarren seihilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko irailaren 12an.

3. Enpleguaren Euskal legearen lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011eko bigarren seihilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Etenda.

a.3) **Bidea eteteko arrazoiak:** Lan Harremanen Kontseiluak, organismo horretako Txostenen Batzordeak 2011ko azaroaren 7ko akordioaren ondorioz, eta CONFEBASK eta UGT-Euskadi eta CCOO sindikatuek, elkarrekin adostutako azaroaren 9ko testu baten bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari eskatu diote izapidean daraman bidetik ateratzeko Enplegu Legearen aurreproiektua, oraindik ere horri buruz eztabaidan aritzeko solasaldi sozialean, eragile sozialekin hitzartutako testua lortzeko.

Eskaera horiek aztertu ondoren, eta emandako azalpenak kontuan hartuta, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak egoki ikusi du Enplegu Legearen aurreproiektua prestatzeko prozeduraren izapide bertan etetea, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2011ko azaroaren 23an emandako aginduan xedatzen den moduan.

4. Transexualitateari buruzko lege-proiektu integrala.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: EAEko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman du dagoeneko, 2011ko azaroaren 30ean.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo hiruhilekoa.



a.4) Izen berria: Generozko izaeragatik bazterkeriarik ez egiteko eta transexualak aintzatesteko legearen proiektua.

5. Partaidetza Instituzionalari buruzko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko 3. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seiuhilekoa.

7. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1. Droga-mendekotasunari buruzko lege-proiektu integrala.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Hasteko.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seiuhilekoa.

a.4) Izen berria: Adikzioei buruzko ege-proiektu integrala.

8. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1. Euskadiko Ingurumena Babesteko lege orokorra aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Legegintza-egutegitik kenduta.

a.3) **Kentzeko arrazoiak:** Ingurumeneko lege orokorra taxutu izana. Sailak berak hartu zuen ardura hori, 2010eko azaroaren 30ek Gobernu Kontseiluaren akordioaren bidez, eta akordio horretan berriro definitu zen nola gauzatu gaur egun indarrean dagoen legea aldatzea. Oso lan handia izan da, eta 2011ko martxoaren 22ko hasiera-agindua bete beharrez, 200 artikulua eta 14 eranskin baino gehiago dituen arau-testua eman du.

Lege horrek hainbat eta hainbat eduki biltzen dituenez -baita gaur egun indarrean dagoen legearenak, estatuko legedia oinarritzotik 3/98 Legean jasotzeke zeudenak eta natur ondareari buruzko beste eduki batzuk ere-, ez da harrizkoa izango testuaren instrukzioko faseak ere luze jotzea. Ez dugu ahaztu behar, honelako lege batek ezinbestekoa duen adostasuna lortu aldera, instrukzio parte-hartzailea egin beharko dela, uztailearen 18ko 27/2006 legearen funtsarekin bat etorrita (naturari buruzko kontuetan informazioa, parte-hartze publikoa eta justizia eskuratzea arautzen dituen, 2003/4/CE eta 2003/35/CE zuzentarauak bereganatuta).

Hori guztia ikusita, begi bistakoa da oso nekeza izango dela ingurumenari buruzko lege orokorra legealdi honetan onartzea.

2. Paisaia Antolatzeari buruzko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa

a.2) 2011ko abenduko egoera: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena eskatzeko agindua emanda dago, 2011ko azaroaren 17an.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2012ko lehenengo seihilekoa.



9. KULTURA SAILA.

1. Gazteen Euskal Legearen proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: Gobernu Kontseiluak onartua, 2011ko urriaren 7an.

2. Kiroleko dopinaren kontrako legearen proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2011ko abenduko egoera: EAEko Aholku Batzorde Juridikoak dagoeneko irizpena eman du.

a.3) Gobernu Kontseiluak jasotzeko aurreikusitako data: 2011ko abenduaren 27an eramango da Gobernu Kontseilura.

II. ERANSKINA

LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN BARNEAN SARTUTAKO LEGE-PROIEKTU BERRIA

1. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.

2013/2016 urtealdirako Euskal Estatistika Planari buruzko lege-proiektua

a) **Helburua:** Estatistika-lana planifikatu eta sistematizatzea. EAEren eskumen eksklusiboa denez, autonomia-erkidegoko estatistika-erakundeak egingo du 2013/2016 epean.

b) **Eragina:** 2013/2016 eperako Estatistikako Euskal Planaren edukiak bat etorri behar du Euskadiko Autonomia Erkidegoko estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean aurreikusitako jardun-arauekin, bai eta Europako Estatistiken Jardun Onen Kodean ezarritakoarekin eta nazioarteko jardun estatistiko onenekin ere.

c) **Parte-hartzaileak:** Eustat - Euskal Estatistika Erakundea.

d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurreikusitako data:** 2012ko bigarren seihilekoa.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren eraginak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut Vitoria-Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 10ean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO